

PRENTSA OHARRA: 2021.11.25

Uxue Alberdik FIL Guadalajaran hartuko du parte Etxepare Euskal Institutuaren eskutik

- Idazleak *Jenisjoplin* eleberria aurkeztuko du eta hainbat literatura-ekitalditako protagonista izango da, Guadalajara eta Mexiko Hirian, azaroaren 28tik abenduaren 4ra bitarte.
- 2011. urtetik Etxepare Euskal Institutuak euskal idazleen parte hartzea sustatu du sektoreko ekitaldi garrantzitsu honetako programa ofizialean euskal literaturari nazioarteko leiho bat eskaintzeko helburuarekin.

Pandemiak markatutako 2020. urtearen ostean, Guadalajarako Nazioarteko Liburu Azokak (Mexiko) euskal literaturako ahots nabarmen bat hartuko du berriz aurtengo edizioan. FIL Guadalajara sektoreko ekitaldi garrantzitsuenetakoa da nazioartean eta Iberoamerikar literaturaren hitzordu nagusia, urtero ehunaka idazle eta hainbat mila profesional eta irakurle biltzen dituena.

Uxue Alberdi (Elgoibar, 1984) idazle eta bertsolariak *Jenisjoplin* eleberria aurkeztuko du FIL-eko programa ofizialean, eta hainbat ekitalditan hartuko du parte, bai azokan bertan, eta baita hitzordu horren harira Guadalajaran eta Mexiko Hirian egingo diren zenbait jardueratan. Bere agenda komunikabideetan elkarrizketa eta agerpenekin osatu du Etxepare Euskal Institutuak euskal literaturari ikusgaitasun eta oihartzun gehien emateko asmoz.

Alberdik honako jardueretan hartuko du parte Mexikon:

- **Azaroak 29, 19:00 h.** Librería Impronta, Guadalajara. *Aurkezpena Julián Herbertekin solasean.*



- **Azaroak 30, 19:30 h.** Librería Gandhi, Guadalajara. *Liburuaren aurkezpena.*
- **Abenduak 1, 20:00 h.** FIL. Salón F, Área Internacional. *Literatura, música y rebeldía: una conversación con Uxue Alberdi.* (Literatura, musika eta errebeldia: Uxue Alberdirekin solasaldia).
- **Abenduak 2, 20:00 h.** FIL. Salón 7, Área Nacional. *Los Lectores Presentan Jenisjoplin.*
- **Abenduak 3, 18:00 h.** Librería Volcana, Mexiko Hiria. *Uxue Alberdi en diálogo con la escritora, editora y traductora Yael Weiss.* (Uxue Alberdi Yael Weiss idazle, editore eta itzultzailearekin elkarrizketan).

Jenisjoplin Consonni argitaletxeak 2020an gaztelaniaz plazaratu zuen eta Mexikon banaketa dauka. Eleberria identitate pertsonal eta kolektiboaren berrasmaketari buruzko kontakizuna da, 2010. urtean, eraldaketa betean dagoen euskal testuinguru soziopolitikoan kokatzen dena. *Jenisjoplinek* harrera beroa jaso zuen irakurleen eta liburu-denden aldetik, eta oso kritika onak izan zituen. 2017an 111 Akademia Saria irabazi zuen.

Nazioartean liburuaren sektoreko ekitaldirik garrantzitsuenetako batean euskarazko literatura-sorkuntzari ikusgarritasuna emateko xedearekin, Etxepare Euskal Institutua FIL Guadalajaran euskal idazleen parte hartzea sustatzen ari da 2011tik, mexikar eta nazioarteko publikoari azken urteotan arrakasta nabarmenak lortu dituen literaturara hurbiltzeko aukera eskainiz. 2020ko etenaldiaren ondoren, Uxue Alberdik Kirmen Uribe, Arantxa Urretabizkaia, Bernardo Atxaga, Karmele Jaio, Harkaitz Cano, Anjel Lertxundi edo Eider Rodriguez bezalako izenen lekukoa hartuko du.

Uxue Alberdiri buruz

Uxue Alberdi (Elgoibar, 1984) kontakizun, eleberri, saiakera, literatura-kronika eta haur literaturaren egilea da. Euskadi Literatura Saria birritan jaso du, Haur eta Gazte Literaturan *Besarkada* lanagatik eta Saiakeran *Kontrako eztarritik* lanagatik. *Jenisjoplin* eleberriak 111 Akademia Saria jaso zuen eta gaztelaniara eta ingelesera itzuli da. Gaur egun, literatura-tailerretako irakasle, iritzi-artikulugile, itzultzaile irakurle-



taldeen gidari eta letragilea da, besteak beste. Ainhoa Agirreazaldegirekin batera, Bertso Eskola Feminista jarri zuen abian.

FIL Guadalajara: Iberoamerikako literatura-hitzordu nagusia

FIL Guadalajara, modu presentzian itzuliko da azaroaren 27tik abenduaren 5era. Munduko literatura-ekitaldi garrantzitsuenetako bat da, eta Iberoamerikako liburuaren sektoreko profesionalentzat urteko hitzordu nagusia. 35. edizio honetara 46 herrialdetako 255 erakusketari eta 600 egile etorriko dira, baita liburua, akademia, kultura, pentsamendua eta zientziaren alorreko figura garrantzitsuak ere.

Bederatzi egunetan zehar, liburua, irakurketa, zientzia, artea, kultura eta pentsamenduari loturiko jarduera sorta zabala eskainiko du 2021 programak.

Literatura, akademia, kazetaritza eta zientzia-dibulgazioaren eremuko pertsonen artean honako hauek bertaratuko dira: Diamela Eltit, Sergio Ramírez, Margo Glantz, John Boyne, Camila Sosa Villada, Carmen Aristegui, Guillermo Arriaga, Laura Restrepo, Christophe Galfard, Claudia Piñeiro, Enrique Krauze, Mónica Ojeda, Juan Gabriel Vásquez, Miguel Gane, Pura López Colomé, Brenda Lozano, José Luis Rodríguez Zapatero, José Gordon, Abdelá Taia, Noemí Casquets, Julián Herbert, Benito Taibo, Jorge Ramos, Tamara Tenenbaum, Leonardo Padura, Uxue Alberdi eta Élmer Mendoza.

Aurten programatutako jardueren % 30 inguru birtuala izango da, eta, besteak beste, protagonista hauek hartuko dute parte: Cristina Rivera Garza, Ana Luisa Amaral, Paul Auster, Etgar Keret, Muriel Barbery, Ken Follet, Isabel Allende, Jonathan Franzen, Amin Maalouf, Javier Cercas, Pilar Quintana eta Fernanda Melchor.



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus